

LUTXI ALBERDI ETA RESU ORBE-RI OMENALDIA

25 urte Euskaltzaindian lanean

Bilbo, egoitza, 2003-XII-19

LUTXI ALBERDI ETA RESU ORBE: 25 urte Euskaltzaindian lanean

Bilbon, 2003ko abenduaren 19an.

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Lutxi Alberdi Arruabarrena, zornotzarra sortzez eta Iurretakoa aspalditik. Joan den ekainean bete ditu hogeita bost urte gurekin lanean ari dela. Idazkari lanetan, orain-tsu arte Jose Luis Lizundiaren manupean eta, egun, Pello Telleriarenean, idazkariorde-tzan eta Juanjo Zearreta, kudeatzailearen zenbait alorrekoetan. Esan didatenez, guri, euskaltzainoi, Zuzendaritzakooi, batzordekideoi, idazkariordeak prest prest mahai gainera ekartzen dizkigun karpeta horiek zuk apailatzen dituzu, ongi horniturik, zehatz zenbakiturik, txukun apaindurik.

Lutxik, bistan denez, ez du lan hori bakarrik egiten, beste aunitz ere: gutuneria guztiaren sarrera-irteerak; batzar agiri eta deien igorketak dagozkien zerbitzu, batzorde edo karguetara banaketa; ordezkariak eta egoitzaren arteko ostatu erreserben koordinaketa eta abar ere, bere ardura izaten da. Lehen solairuko administraziora zerbitzu bila iristen den nornahik (galdera, kontsulta, ziurtagiri nahiz beste dela) Lutxiren harrera-irriñoa aurkituko du, gero, berak, Begok, Resuk edo beste batek zerbitzatzen badu ere.

Jose Luis Lizundiak esana didanez, leialtasuna eta trebetasuna dira dohain aipagarrienak. Gainera, leialtasun horren baitan, behin baino gehiagotan, eta konfiantza osoz, nagusiarik kritika mesedegarriak egiten ere erakutsi du.

* * *

Resu Orbe Monasterio, Errigoitin sortua. Nahiz eta lan egunetan, hemen, Bilbon bizi den, bere jatorrira itzultzen da asteburuetan. Resu ongi oroitzen da, zein egunetan hasi zen lanean Euskaltzaindian, 1978.urteko abenduaren 6an. Beraz, duela 25 urte Hegoaldeko, *konstituzio* bat bozkatzera deituak izan zineten egunean.

Resu, *Chocolates Bilbainos/CHOBIL* deitutako enpresa batetik etorri zen, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren familiak zerikusi zuen enpresatik hain zuzen ere, enpresa hau Asturias aldera aldatzea erabaki ondoren. Fakturazio lanetan aritua, berehala jarri zen Juanjo Zearreta ekonomi eragilearen eta orduko Euskaltzaindiaren kontulari zen Xabier Gereñoren laguntzaile. Lan isila, konfiantzazkoa, Akademiaren zordunei goiz edo berant, askotan, ezinbestean, berant ordainkizunak prestatzen; geuri, dieta, bi-daia-gastu, esleipenak eta abar ordaintzen; bankuetako joan-jinak, salmenten faktura-

zioak, kontularitzako ezarpenak egiten; Diruzaintzako artxibategia antolatzen eta abar. Gehiegi ikusten ez den baina eragina duen lana burutzen.

Resu langile noblea dela esan didate, esanekoa, langileen artean, haserrea baino umorea gehiago erabiltzen dakiena. Lankidetzaz bazkarietan irrintzi eta guzti giroa alaitzen dakiena.

Euskaltzaindiko langilegoak, bai egoitzako eta baita ordezkarietzakoak, talde edo ekipo ona eta historikoa osatzen du. Gure Erakundearen zilarrezko zerrenda kronologikoan: Jose Luis Lizundia, Maria Pilar Lasarte, Juanjo Zearreta, Rikardo Badiola, Nere Altuna eta Bego Amundarainen ondoren aipatuko dira Lutxi Alberdi eta Resu Orbe.

Zorionak, beraz, LUTXI eta RESU. Gorde itzazue Zilarrezko domina hauek zuzen zintzotasunaren eta Erakundearekiko atxikimenduaren lekuko baitira.

RESU ORBE ETA LUTXI ALBERDI:
Euskaltzaindian 25 urte lanean

Bilbon, 2003.eko abenduaren 19an

*Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzaile ohia eta euskaltzain osoa*

Administrazio solairuko langile hauek omentzean, partetxo bat hartzea eskatu nion gure Euskaltzainburuari.

Hogeita bost urtetan administrazio kudeaketa zuzena eraman dut. Juanjo, Rikardo, Bego, Lutxi eta Resu, nirekin hasitako berberak jarraitzen dute. Rosa Mari hil zen, Jonak ordezkatua; Xabier Gereñoren jubilazioan, ordezkoa Bibliotekara pasatu zen. Pello berria da.

Hogeita bost urteren buruan, administrazio solairuan ez dugu bat ere gehiketarik izan, agintari zenbaitek besterik uste izan badute ere.

Administrazioa koipetu gabe ezin nintekeen erakunde hau ongi bideratu. Horretan lehen Begori, orain Lutxi eta Resuri, heldu den urtean Gasteiz eta Iruñeko ordezkarietako biri iritsiko zaie zilarrezko domina jasotzeko txanda.

Eskerrik asko gaur Resu eta Lutxi hogeita bost urtetako lankidetzaz zintzoagatik.